

Ikaslearentzako gida

Ikasgaiaren aurkezpena.

Komunikazio produktu eta zerbitzuen audientzia azterketak hedabideen (egunkariak, aldizkariak, webguneak, telebista saioak, musika, zinema, eta abarren) kontsumo kuantitatiboaren neurketaz aritu dira batez ere. Funtsean, audientziaren tamaina deskribatzen da, eta bai haren profil soziodemografikoa eta kontsumo maiztasuna ere.

Hala ere, gaur egun gero eta interes handiagoa dago pertsonen egunkari, aldizkari, pelikula, iragarki edo telebista saio bat ikusi, entzun edo irakurtzen dutenean pentsatzen eta sentitzen dutena analizatzeko. Esperientzia subjektibo hau da, hain zuzen, hedabide bat kontsumitzeko edo ez kontsumitzeko arrazoi nagusia. Hortik ulertzeko interesa.

Aurrekoa dela eta, funtsezkoa da edozein komunikatzailearentzat audientziak proposatutako mezuaren aurrean ematen duen erantzun kognitibo eta afektiboa auresaten saiatzeko gaitasuna garatzea. Hau da modu bakarra publikoarekiko lotura egokia lortuta, bere atentzioa eta onespina bereganatzeko.

Helburuak / gaitasunak:

Enpatia gaitasun horren garapena da, hain zuzen ere, ikasgai honen helburu nagusia. Xede honetara bideratuta daude ondorengo jarduerak:

- (a) mota desberdinetako testuen analisia, alegia, helburua informatzea, pertsuaditzea zein entretenitzea duten testuak.
- (b) mezuak diseinatzea, eta
- (c) hartzaileek testua nola jaso duten ebaluatzea.

Jarduera horien bitartez honako gaitasun hauek garatu nahi dira ikasleengan:

- C1. Pertsuasioak egungo gizarteetan duen funtzioaz jabetzea, pertsuasioaren agerpen desberdinak bereiztea eta agerpen guztien oinarri komuna antzematea.
- C2. Pertsuasio elkarrekintzan parte hartzen duten prozesu psikologikoak interpretatzea gizarte psikologia erabiliz.
- C3. Komunikazio piezak analizatzea, eraginkortasun gakoak azalduz.
- C4. Komunikazio egoeraren araberrako estrategia eta mezu pertsuasiboak diseinatzea.
- C5. Mezuaren harrera eta eragin pertsuasiboa ebaluatzea.

Gaiak:

1. Atarikoak.
 - 1.1. Pertsuasioaren hiru mailak.
 - 1.2. Pertsuasioz inguratuta gaude.
 - 1.3. Zer da pertsuasioa?
2. Pertsuasioaren funtsa: aktitudeak.
 - 2.1. Aktitudeak zer diren
 - 2.2. Aktitudearen osagaiak
 - 2.3. Aktitudearen objektua
 - 2.4. Aktitudeen funtzioak
 - 2.5. Aktitudeak neurtzen
 - 2.6. Aktitudeak nola sortzen diren
 - 2.7. Aktitudea eta jokabidea
 - 2.8. Esanekotasuna
3. Pertsuasio teoriak.
 - 3.1. Orain arteko bidea
 - 3.2. Eraginen hierarkien aroko teoriak
 - 3.3. Gaur egungo ikuspegia: bitariko eredua
 - 3.3.1. Eredu heuristikoko sistematikoa
 - 3.3.2. Lanketa probabilitatearen eredua
4. Pertsuasioaren funtsezko aldagaiak
 - 4.1. Mezuaren iturria
 - 4.1.1. Sinesgarritasuna
 - 4.1.2. Erakargarritasuna / sinpatia
 - 4.1.3. Boterea
 - 4.1.4. Asmo pertsuasiboa agerian? Reaktantziaren teoria
 - 4.1.5. Pertsuasioa denbora pasa-ahala: lozorro-eragina.
 - 4.2. Mezu pertsuasiboa
 - 4.2.1. Edukia
 - 4.2.2. Egitura